

#Euskarari Puzka

urriak 23 - azaroak 13



errigora

errigora.eus

Ezinbestekoak

euskararentzat Agerrean



agerraldia
euskara plazara



IKASTOLAK



Sortzen

Saskien balioaren **%25** Nafarroa erdi eta
hegoaldeko **(Agerreko) euskalgintzara** bideratuko da



Saski beltza 60€



Saski berdea 65€



Saski gorria 75€

EUSKARARI PUZKA 2025

EZINBESTEKOAK euskararentzat Agerrean



Nafarroa erdi eta hegoaldean lanean ari diren euskalgintzako eragileak (AEK, Sortzen, Ikastolak eta Agerraldia) ezinbestekoak dira euskararentzat. Euskarak zonaldean arnasa har dezan bertatik eta bertarako egiten dute lan. Zuhaitz bat balira bezala hizkuntza sustraitzeko lanetan ari dira, baina baita bertako euskaldunek arnasa har dezaten aire kutsatua garbi bilakatzen ere. Udaberriro-udaberriro loratzen dira, hizkuntza ez dadin zimeldu.

Zuhaitzak lanean jarrai dezan, ezinbestekoak garenak gainontzeko lurraldetako euskalzaleok gara. Haize eta euriaren kontra jarduten duten horiei goxotasuna eta maitasuna bidaltzeko aukera bat dugu Euskarari Puzka kanpaina. Asmo horretan auzolana tresna eta palanka, ezinbesteko elkartasun-keinua da Euskarari Puzka kanpaina, ekintza txiki asko batuta sortzen den handitasun horregatik.

ESKAINTZA



Saski beltza 60€

Olioia · Piperrak · Potxak · Ilarrak
Zainzuriak · Orburuak · Kardua
Borraja · Teilak · Mahats zukua
Ardo beltza · Patxaran mantekatuak



eko Saski berdea 65€

Piperrak · Olioia · Zainzuriak
Orburuak · Txitxirioak · Pasta
Tomatea · Teilak · Txokopipitak
Sagar zukua · Ozpina · Ardo
beltza erdi-ondua



Saski gorria 75€

Ardo beltza (18 hil barrikan)
Ardo txuria · Olioia · Piperrak
Zainzuriak · Turroia · Patxarana
Mantekadak · Polboroiak
Ardi-gazta · Txokolatezko
molineritoak

EUSKARARI PUZKA 2025

ESKAERAK

Online: errigora.eus

Gure webguneak eskaintzen du eskaerak jasotzeko bide eraginkorrena eta sinpleena. Beraz, azken urteetan egin bezala, lehentasunez bide hau sustatzen saiatuko gara.

Eskuorria

Badakigu hainbatek zailtasunak izan ditzaketela internet bidez eskaerak egiteko edo nahiago izan dezaketela ohiko bideak erabiltzea eta, beraz, kanpainako eskuorriak dakarren inprimakia betez ere egin daitezke eskaerak. Eskaera hauek herrietako arduradunari emanda erregistratu daitezke.

KANPAINAREN FUNTZIONAMENDUA

Eskaerak egiteko epea: Azaroaren 13a baino lehen egin behar dira.

Eskaerak jasotzeko: Azaroaren amaieran edo abenduaren hasieran jasoko dituzte eskatzaileek produktuak bakoitzaren herrian, eskaera egitean aukeraturako gunean, zehaztutako egutegi eta ordutegian.